

Hiru sormen eta robotika tailer antolatu dira gaztetxoentzat

Ermuko Udaleko Toki-Garapen alorrak DBHko lehen eta bigarren mailan dauden herriko ikasleentzat hiru tailer antolatu ditu. Abenduko azken astean burutuko dira, eta tailerron helburuak dira herriko gazteak industriara eta teknologia berrietara hurbiltzea, sorkuntza-gaitasunak garatzea eta ekintzailetasuna bultzatzea.

1 2 eta 13 urte bitarteko 42 ermuarrek eman dute izena jada Gabonetako sormen eta robotika tailerrean. Iaz jarri zen martxan programa hau, (2 Campus Teknologiko eta 3 robotika tailerrekin), eta izan zuten arrakasta ikusita, aurten ere jarraipena ematea erabaki du Ermuko Udalak.

Alde batetik, Zubiondo enpresak hainbat erronka aurkeztuko dizkie gaztetxo-
ei, diseinuari, ergonomiari eta erabilerari dagokienez erremintak hobetu ahal izateko. Horretarako, *design thinking*, sormen teknikak, ikus-entzunezko narratibak eta abar erabiliko dituzte.

Bide horretan, Artforlife!! eta Filmatu enpresen laguntza jasoko dute.

Halaber, beste bi tailerrak robotikaren ingurukoak izango dira, eta *dronen* eta *roverren* diseinua eta muntaia landuko dira Erle Robotics enpresaren eskutik. Abenduaren 26tik 30era burutuko dira ekimen horiek Izarra Centre eraikinean, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin.

Maker tailerra

Honekin lotuta, Maker tailerra egin zen azaroaren 19an, 8 eta 12 urte bitarteko 40 neska-mutilekin. Udaren webgunean irakurri daitekeenez, besteak beste, errealitate birtualeko be-



taurrekoak probatu, bideojoko dibertigarriak garatu, hortzetako eskuilarekin robot txikiak sortu, lekak eta platanoak erabilita musika jo eta 3D inpresoren funtzionamendua ikusi ahal izan zuten parte-hartzaileek.

Ekimen horren barnean, Eusko Jaurlaritzak finantzaturako "ETE erronkak ikasgeletan" lehiaketan garaile suertatu ziren taldeak saritu ziren. San Pelayo Ikastetxeko Ane Gonzálezek, Edurne Roblesek, Ander Postigok eta Julen Pérezek irabazi zuten lehen saria, martxak

automatikoki aldatzen zizuten bizikleta sortu eta gero. Bigarren saria irabazi zuten Unai Osak, Jon Rodríguez, Seve Eduk, Miguel Fernándezek eta Nikolas Vikuñak (Uni Eibar-Ermua Ikastetxea), Bici-Tech asmakizunari esker. Azkenik, Armeria Eskolako Urko Urizarbarrenak, Mohamed Hdidouk eta Amaia Ballesterosek eskuratu zuten hirugarren saria, GPSa eta ehun fotoboltaikoa zituen kaskoari esker. Ekitaldi horrek itxi zuen Ermuko XI. Toki-Garapeneko Astea.

Dorleta Vidal

Paco autobus geltokiaren ondoan gaude

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es



Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu
Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.
Komentukua z/g - 943030527